

# EUSKALTEL TALDEAREN KANAL ETIKOA

<b>1. XEDEA</b> .....	<b>2</b>
<b>2. IRISMENA</b> .....	<b>2</b>
<b>3. ADIERAZLEAK</b> .....	<b>2</b>
<b>4. DEFINIZIOAK</b> .....	<b>2</b>
<b>5. ERANTZUKIZUNAK</b> .....	<b>3</b>
<b>6. DESKRIBAPENA</b> .....	<b>3</b>
<b>7. ERREGISTROAK</b> .....	<b>11</b>
<b>8. ERREFERENTZIAK</b> .....	<b>12</b>
<b>9. ERANSKINAK</b> .....	<b>12</b>

## **1. XEDEA**

Dokumentu honen xedea da deskribatzea nola funtzionatzen duen Euskaltel Taldearen —legezko adieran Euskaltel SA buru duten sozietatearen—mekanismo batek, zeina jartzen baita taldeko profesionalen, bezeroen, hornitzaileen eta hirugarrenen zerbitzura (aurrerantzean, Hirugarrenak), xedetzat harturik edozeinek jakinarazi ahal izatea, fede ona nagusi dela eta segurtasunaren eta konfidentziasunaren bermearekin, ustez Kode Etikoa, Jokabide Arauak edo Euskaltel Taldearen Gobernu Korporatiboko Sistemaren beste zeinahi arau zein enpresaz kanpoko legedi edo araudi aplikagarria urratzen duten ekintza edo jarduerak.

Mekanismo hori erabil daiteke bitarteko gisa, halaber, informazioa eskatzeko, kontsultak egiteko edo argibideetarako, aurreko paragrafoan aipatutako araudiari dagokionez, Euskal Taldearen jardueraren inguruan.

Kanal horrek ez die erantzungo Taldeko sozietateen produktuak hornitzearekin edo zerbitzuak ematearekin zerikusia duten arazo, zalantza edo erreklamazioei, ez eta Bezeroaren Arretarako Zerbitzuarekin lotutakoei ere

## **2. IRISMENA**

Dokumentu honek eragiten die Taldeko profesionalak edo Hirugarrenek egindako kontsulta, salaketa, komunikazio eta informazio-eskaera guztiei, Taldearen Gobernu Korporatiboko Sistemaren inguruko zalantza eta gorabeheren eta kanpoko legedi eta araudi aplikagarriaren ingurukoak badira.

## **3. ADIERAZLEAK**

- Zenbat komunikazio jasotzen diren, urteko, kanal etikoaren bidez
- Zenbat komunikazio izapidetu diren kanal etikoaren bidez / Zenbat komunikazio jaso diren kanal etikoaren bidez

## **4. DEFINIZIOAK**

Euskaltel Taldearen Kanal Etikoa 2017-12-19koa (DBEOera eta Taldearen sozietate berrira egokitua, 2018-05-25ean eta 2019-07-01ean, hurrenez hurren)

Ez zaio aplikatzen.


## 5. ERANTZUKIZUNAK

- Euskaltel Taldeko profesionalak eta Hirugarrenek ardura dute Kanal Etikoa erabiltzeko kontsulta bat egin nahi dutenean Kode Etikoaren edo aplikagarria den kanpo- edo barne-araudiaren aplikazioaz edo interpretazioaz, Taldearen jarduerari dagokionez, edo urratzeren bat gertatu dela uste dutenean.
- Euskaltel Taldeko Barne Ikuskaritzako zuzendariaren ardura dira:
  - Barne Ikuskaritzako Eskuliburua betetzea Kanal Etikoari dagokionez, eta, beti, datuen konfidentzialtasuna gordetzea eta irizpideetan independentziaz eta objektibotasunez jokatzeko.
  - Kanal Etikoaren jarduera-erregistroa eramatea.
  - Dagokien antolaketa-egiturei jakinaraztea Kanal Etikoaren jarduerak zer ondorio dituen, eta agintari judizial edo administratibo eskudunei jakinaraztea legez kontrako jokabideren baten zantzurik aurkitzen badu.
- Euskaltel Taldeko Araudia Betearazteko Batzordea arduratuko da gertaerak aztertzeaz, konfidentzialtasuna bermatuz, eta erabakiko du ea espediente bat izapidetzen jarraitu behar den, Barne Ikuskaritzaren ikerketaren argitan. Batzorde horretako kideak honako kargu hauek izango dira:
  - Idazkari orokorra eta Administrazio Kontseiluko idazkaria
  - Taldeko Giza Baliabideen saileko zuzendaria
  - Aholkularitza Juridikoko zuzendaria
  - Taldeko barne-ikuskaria (ahotsa bai, botorik ez)
  - Taldeko Araudia Betearazteko arduraduna (Batzordeko idazkaria)

Araudia Betearazteko Batzordeak zainduko du Taldeari aplikatzekoa den barne- eta kanpo-araudia bete dadin; parte-hartzaileen gehiengoz hartuko ditu erabakiak, eta aldi behin bilduko da betetzearen jarraipena egiteko. Bildu egingo da, beti, beharrezko bada Kanal Etikoaren bidez egindako kontsultak edo salaketak daudelako. Egiten diren bilera guztietan, aztertutakoaren akta jasoko du idazkariak.

## 6. DESKRIBAPENA

## 6.1 FLUXU-DIAGRAMA



## 6.2 DIAGRAMAREN JARDUERAK

### 6.2.1. Erabiltzeko arau eta baldintzak

Erabilera-araudi honek jasotzen du Euskaltel Taldearen Kanal Etikoaren funtzionamendua, barne harturik erabiltzaileen eskubideak, betebeharrak, bermeak, terminoak, irispidea izateko baldintzak eta erabiltzeko baldintzak, jarraian adieraziko den bezala.

- Kanal Etikora sartzeak eta hura erabiltzeak esan nahi du erabiltzaileak erabat eta inolako baldintzarik gabe onartzen dituela erabilera-arau eta -baldintza hauek, une bakoitzean indarrean dagoen bertsioak.
- Kanal Etikoa ezin izango da erabili sortu den helburuez bestelakoetarako. Euskaltel Taldeak eskubidea du Kanal Etikoaren aurkezpena, konfigurazioa eta funtzionamendua aldatzeko, bai eta erabilera-arau eta -baldintza hauek ere.
- Kanal Etikora sartzeko bidea, Taldeko profesionalentzat, bakoitzaren intranet korporatiboa izango da, eta Hirugarrenentzat, berriz, dagozkien webguneak, horretarako garatuta daudenean.
- Kanal Etikora sartzen diren pertsonak Kanal Etikoaren erabiltzaitzat hartzen dira.
- Kanal Etikoaren erabiltzaileek konpromisoa hartzen dute hura egoki eta zuzen erabiltzeko, ordenamendu juridikoaren arabera, erabilera-baldintza hauek betetzeko, sorrerako xedeek dioten bezala kontsultei erantzuteko eta salaketak kudeatzeko, eta fede onaren eskakizunak zaintzeko.
- Euskaltel Taldeko profesionalak ustezko ez-betetzeen berri eman beharko dute jakiten dutenean edo arrazoizko zantzuen arabera uste dutenean jokabideren batek urratu duela Gobernu Korporatiboko Sistemak eta aplikatzekoa den kanpo-araudiak agintzen dutena.
- Euskaltel Taldeko profesionalak edo Hirugarrenek beste eskubide eta eskumen batzuk baliatu nahi badituzte, Legean eta Euskaltelen barne-araudian horretarako ezarritako lege-bideak erabili behar dituzte, xedatutakoaren arabera; Kanal Etikoa ez da, inola ere, baliozko bidea horretarako. Kanal Etikoa sortzeak eta martxan jartzeak ez du esan nahi gertatutakoak ordenamendu juridikoaren arabera salatu behar ez direnik.

- Kanal Etikoaren erabiltzailea nor den, informazio konfidentzialtzat hartuko da, eta ezin hartuko da profesionalen kontrako inolako diziplina-neurririk, zuzenean edo zeharka, jakinarazpena egiteagatik, hargatik eragotzi gabe indarrean dagoen legeriaren eta erabilera-araudi honen arabera salatuei dagozkien eskubideak.

### 6.2.2. Kanal Etikorako sarbidea

Taldeko profesionalak Kanal Etikora sar daitezke dagokion sozietatearen intranet korporatiboaren bitartez, eta, horretarako, helbide elektronikoko hauek jarri dira:

- [canaletico@euskaltel.com](mailto:canaletico@euskaltel.com).
- [canaletico@mundo-r.net](mailto:canaletico@mundo-r.net)
- [canaletico@telecable.com](mailto:canaletico@telecable.com)

Kanal Etikoaren erabiltzaile diren Hirugarrenak Taldeko sozietateen webgune korporatiboetako Kanal Etikoa atalaren bidez sartuko dira, webguneok garatuta daudenean, eta bereziki hauen bitartez:

- [www.euskaltel.eus](http://www.euskaltel.eus)
- [www.mundo-r.com](http://www.mundo-r.com)
- [web.telecable.es](http://web.telecable.es)

Jakinarazpenaren hartzailea, beti, Taldeko Barne Ikuskaritzako zuzendaria izango da.

### **6.2.3. Datu pertsonalen babesa**

Egiten diren jakinarazpen guztiek bete beharko dituzte Taldeko enpresen informaziorako segurtasunaren politikak eta, ondorioz, DBLOk xedatutakoa.

Salatutako baten datuen tratamendua, halakorik bada, haren onespenerik izango ez duenez, 15/1999 DBLOren 6.2 artikuluan ezarritako onspen-beharraren salbuespenean oinarrituko da, esaten baitu datuak tratatzeko onspena ez dela beharrezkoa kontratuzko harreman bat betetzeari dagokionez.

15/1999 DBLOren 5.4 artikulua dioena betez, salatuaren datuak ez direnez berarengandik jasoak izango, baizik hirugarren batengandik, fitxategiaren arduradunak berariaz egingo dio jakinarazpena salatuari, datuak erregistratu ondorengo hiru hilabeteen barruan.

Horren ondorengo jakinarazpen guztiak paperean egin eta gordeko dira, gaiari buruzko legeriak hauei buruz ezarritako betekizunen arabera: salatzen diren egintzek lan-arloarekin duten lotura, salaketak gordetzeko gehieneko epea, informatzeko betebeharra, eskubideak baliatzea eta segurtasun-neurriak ezartzea. Maila handiko segurtasun-neurriak ezarriko dira.

Egitateak frogatzen ez badira, datuak ezabatu egin behar dira ikerketa amaitu ondorengo bi hilabeteko epean. Akzioak hasten badira, datuak gorde egingo dira epaiketarik bada konpainiak bere eskubideak baliatzeko beharrezko den heinean.

### **6.2.4.-Datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatzeko, ezerezteko, haien tratamendua mugatzeko edo haiei aurka egiteko eskubidea**

Eskubide horiek gauzatzeko Taldeko sozietate bakoitzaren prozeduran ezarritakoa aplikatuko da, baina kontuan hartu behar dira hauek:

- Datuak ezin izango dira zuzendu edo ezereztu, edo ezin izango da haiek tratatzearen aurka egin, ikerketa izapidetzen ari den bitartean eta, hala badagokio, ikerketatik eratorzen diren prozedura judizialak izapidetzen ari diren bitartean.
- Salatuak datuak eskuratzeko eskubidea baliatzen badu, kanpo gelditu behar du beti salatzailea nor den jakiteko aukerak.

Garatu bitartean, Taldeko edozein enpresatako Kanal Etikoaren erabiltzaile diren hirugarrenek posta arruntez baliatu ahal izango dituzte beren EZZA eskubideak, beren jakinarazpenak Euskaltel Taldeko Barne Ikuskaritzako zuzendariari bidaliz, helbide honetara: Bizkaiko Parke Teknologikoa, 48160 Derio, Bizkaia. Gutun-azalaren kanpoaldean “Euskal Taldearen Kanal Etikoa, EZZA eskubideak” jarri behar da.

Profesionalen kasuan, hala salatzaileak nola salatuak 6.2.2 puntuan adierazitako helbide elektronikoa dute beren EZZA eskubideak egikaritzeko.

#### **6.2.5.-Kanal Etikoaren bidezko jakinarazpena**

Intranetean eskura egongo den formularioaren bidez egingo du erabiltzaileak Kanal Etikoaren bidez prestatzen duen jakinarazpena, eta honako informazio hau izango du, gutxienez:

Kanal Etikoaren erabiltzailea nor den, datu hauen bitartez:

- Euskaltel Taldeko profesionalen kasuan
  - Erabiltzaile-izena eta pasahitza
  - NANaren edo agiri baliokide baten zenbakia
  - Langile-zenbakia
  - Zer jakinarazpen-mota egin nahi den, **Ez-betetze motak** eranskinean sartuta daudenetatik aukeratuta.
- Hirugarrenen kasuan

- NANaren edo agiri baliokide baten zenbakia.
- Euskaltel Taldearekin duen loturaren identifikazioa (bezeroa edo hornitzailea).
- Zer jakinarazpen-mota egin nahi den, **Ez-betetze motak** eranskinean sartuta daudenetatik aukeratuta.

Ez-betetze motak araudiaren kontrako jokabide moduan jasoak daude dokumentu honen 1. puntuan (“Xedea”).

### 6.2.6. Jakinarazpena Kanal Etikoaren bidez izapidetzea

Euskaltel Taldeko Barne Ikuskaritzako zuzendariaren ardura izango da jakinarazpenak jasotzea eta izapidetzea.

Kanal Etikoaren erabiltzaileek emandako datu pertsonalak konfidentzialtasun osoz tratatu beharko dira beti, aurreko 6.2.1 puntuan jasota dagoen bezala (Erabiltzeko arau eta baldintzak).

Jakinarazpena jasotakoan, Barne Ikuskaritzako zuzendariak erabaki beharko hura izapidetzea edo artxibatzea dagokion. Erabaki horren berri lehenbailehen eman behar dio erabiltzaileari Barne Ikuskaritzako zuzendariak, arrazoiak azalduz. Era berean, dagokion ondorio-txostena prestatuko du, eta Araudia Betearazteko Batzordeari helaraziko dio.

Jakinarazpena artxibatzeko (edo ez izapidetzeko) kausa dira honako hauek:

- 1) Ez-betetzearen jakinarazpenak ez jasotzea 6.2.5 puntuan adierazitako gutxieneko betekizunak (*Kanal Etikoaren bidezko jakinarazpena*) eta hori ez zuzendu izatea Barne Ikuskaritzako zuzendariak hala eskatuta.
- 2) Jakinarazpenaren edukia zer den ezin jakin izatea, edo Taldeko beste organismo edo sail baten esku egotea; esate baterako, dagokion sozietateko Bezeroaren Arretarako Zerbitzua.

- 3) Jakinarazitako ez-betetzea jakinarazia izatea, orobat, edozein organo judizial edo arbitrali edo zeinahi agintari administratibori, haien eskumenean badago egitateak ikertzea, legez kalifikatzea eta/edo ondorio juridikoak esleitzea, eta Euskaltel Taldeak izatea horren berri.

### 6.2.7. Espedientea irekitzea eta ikerketa egitea

Barne Ikuskaritzako zuzendariaren aurretiko analisisen ondoren, Araudia Betearazteko Batzordeak erabakitzen badu izapidetzearekin jarraitu behar dela, azertu beharko du, lehenik, jakinarazpenaren kontakizunean ezarritako politika edo kodeen urratze-aztarnarik baden.

Horren ondotik, azterketa horretan ikusten bada urraketa bat izan dela, espediente bat ireki eta instruitu beharko du, konfidentziala. Espediente hori instruitzeko, Araudia Betearazteko Batzordea baimendua dago behar dituen profesional guztien lankidetzaz eskatzeko Euskaltel Taldearen barruan, eta haiek behartuak daude laguntzera.

Ez-betetzearen ikerketan, Barne Ikuskaritzako zuzendariak beharrezko deritzon jarduera guztiak egingo ditu, hala nola honako hauek:

- Elkarrizketak egitea inplikatuari, lekukoei edo informazio baliagarria eskain dezaketela uste den hirugarren batzuei, edo, inplikatuak hala eskatzen badute, haien idatzizko adierazpenak jasotzea (ahal bada, posta elektronikoaren bitartez).
- Ahal den ebidentzia guztiak jasotzea, prozesurako informazio baliagarria dakartenak, indarrean dagoen legerian aurreikusitako mugen barruan.
- Egoki ikusten den konpainiako arduradun edo zuzendaritzakideen lankidetzaz edo laguntza eskatzea. Lankidetzaz-eskaera horretan, labur adierazi behar da zer lankidetzaz edo laguntza eskatzen den, eta ez da egingo honako hauek identifikatzea ekar lezakeen aipamenik: ustezko urratzea ikusi zuen erabiltzailea, ustezko urratzailea, edo aztergai diren egitateak gertatu diren lantoki jakinaren CDa/Funtzioa.

### 6.2.8. Txostena prestatzea

Ikerketa izapidetzen amaitutakoan, Barne Ikuskaritzako zuzendariak txosten bat prestatuko du, Ikuskaritzako Eskuliburuan ezarritako araudiari jarraituz.

### 6.2.9. Txostena jakinaraztea

Barne Ikuskaritzako zuzendariak Araudia Betearazteko Batzordeari jakinaraziko dio ondorio-txostena (*Ikerketaren txostena*), bai jakinarazpena izapidetu bada, bai artxibatu bada; Batzordeak, orduan, azken erabakia hartuko du, Euskaltel Taldearen Delituaren Osteko Erantzunerako prozedurari jarraituz.

Barne Ikuskaritzako zuzendariak, hala dagokionean, txostenaren laburpen bat bidaliko dio Araudia Betearazteko Batzordeari, eta hartan proposatuko edo gomendatuko du zer neurri hartu beharko liratekeen, beraren ustez, aurrerantzean halakorik berriz ez gertatzeko. Jakinarazpen horretan, ez da egingo honako hauek identifikatzea ekar lezakeen aipamenik: Kanal Etikoaren erabiltzailea, urratzailea, edo aztergai diren egitateak gertatu diren saila, funtzioa edo lantoki jakina.

## 7. ERREGISTROAK

Kodea	Izenburua	Nork artxibatua	Artxibatze-denbora
	Jakinarazpena	Barne Ikuskaritzako zuzendaria	5 urte
	Ez-betetzearen jakinarazpena izapidetuko ez dela jakinarazten duen idatzia edo mezu elektronikoa	Barne Ikuskaritzako zuzendaria	5 urte
	Ez-betetzea izapidetzean eta ikertzean lortutako ebidentziak	Barne Ikuskaritzako zuzendaria	5 urte
	Ikerketaren txostena	Araudia Betearazteko Batzordea	Mugagabea

	Ez-betetzearen jakinarazleari eta ez-betetzearen egileari azken erabakiaren berri ematen zaion jakinarazpenak	Barne Ikuskaritzako zuzendaria	Mugagabea
	Agintari judizial edo administratibo eskudunei egindako jakinarazpenak	Barne Ikuskaritzako zuzendaria	Mugagabea

## 8. ERREFERENTZIAK

- Abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoa, Datu Pertsonalak Babestekoa (15/1999 DBLO).XX
- Euskaltel Taldearen Kode Etikoa eta Jokabide Arauak.
- Barne Ikuskaritzako Eskuliburua.
- Gobernu Korporatiboko Sistema
- Delituaren Osteko Erantzunerako prozedura.

## 9. ERANSKINAK

- 1. ERANSKINA. Kanal Etikoaren bidez izapidetu daitezkeen **Ez-betetze-motak**.
- 2. ERANSKINA. Datuen babesari buruzko informazioa.

### 1. ERANSKINA: Ez-betetze motak

KANAL ETIKOA-GERTA DAITEZKEEN ARAU-HAUSTE BATZUK	
MOTA	JOKAERA
Intimitatearen eta bortxatze informatikoaren aurkako jarduerak	Telekomunikazioak etetea Datuez jabetzea, euskarrian informatikoan Sistema informatikoetan datuetara edo programetara sartzea. Informazio-sistemetan sartzea eta publikoak ez diren transmisioak etetea. Etete edo bortxatze informatikoaren delituak egiteko bitartekoak
Iruzurra	Beste norbaiti iruzur egitea, beste norbaiten kaltean eta iruzurra egiten duenaren onerako lagapena egitera bultzatuz.
Gizartearen ondasunekin lotutako delituzko jarduerak	Ondasunak ostentzea. Exekuzio-prozedura judizialean edo administratiboan dauden ondasunak ezkutatzea. Bahitutako ondasunak baimenik gabe erabiltzea

KANAL ETIKOA-GERTA DAITEZKEEN ARAU-HAUSTE BATZUK	
MOTA	JOKAERA
Kaudimengabezia zigorgarria	<p>Kudeaketa ekonomikoko arduraren kontrako jokaerak izatea, ondarea gutxitzea ekarriko dutenak edo hartzekodunari zordunaren egoera ekonomikoaren berri edukitzea zailtzen edo eragozten diotenak.</p> <p>Zordunak ondarea bereganatzeko ekintzak egitea, une horretan edo berehala kaudimengabezia-egoeran dagoela edo konkurtso-eskaera izapidetzeko onartua dagoela, hartzekodun bati mesede egiteko.</p> <p>Konkurtso-prozedura batean kontabilitate-egoerari buruzko datu faltsuak aurkeztea, konkurtso-deklarazioa bidegabeki lortzeko.</p>
Baliabide informatikoekin lotutako delituzko jarduerak (kalte informatikoak)	<p>Hirugarren batzuen datuak, programa informatikoak edo dokumentu elektronikoak ezabatzea, haiei kalte egitea, hondatzea, aldatzea edo ezabatzea edo horiek eskuratzeko bidea ixtea.</p> <p>Hirugarren baten sistema informatikoaren funtzionamendua oztopatzea edo etetea, aurreko jardueretako bat eginda, datuak sartuta edo transmitituta edo sistema informatikoa, sistema telematikoa edo informazio elektronikoa biltegitratzeko sistema suntsituta, kaltetuta, erabilezin bihurtuta, ezabatuta edo ordeztuta.</p> <p>Aurreko delituetako bat egitea errazteko asmoz, hirugarrenei hauek ekoiztea, erabiltzeko eskuratzeko, inportatzea edo ematea: aipatutako delituak egiteko prestatutako edo egokitutako programa informatikoak, ordenagailu bateko pasahitza, sarbide-pasahitza edo antzeko datuak, informazio-sistema batera edo haren parte batera sartzeko aukera ematen dutenak.</p>
Jabetza intelektualaren eta industrialaren aurkako jarduerak	<p>Jabetza intelektualaren aurkako jarduerak.</p> <p>Jabetza intelektualaren aurkako jarduerak. (patenteak)</p> <p>Jabetza intelektualaren aurkako jarduerak. (markak)</p>
Merkatuarekin lotutako delituzko jarduerak	<p>Enpresako sekretuak ezagutzera ematea.</p> <p>Balio-merkatuetan, tituluak emititzean, informazio ekonomiko-finantzariora faltsutzea.</p> <p>Merkatuan balioak aldatzea</p>
Kontsumitzaileen aurkako jarduerak	<p>Publizitatea eta eskaintzak.</p> <p>Sozietate kotizatu batek informazioa faltsutzea.</p> <p>Fakturazio-sistema manipulatzeko.</p>

KANAL ETIKOA-GERTA DAITEZKEEN ARAU-HAUSTE BATZUK	
MOTA	JOKAERA
Ustelkeria negozioetan	<p>Merkataritza-enpresa edo sozietate bateko zuzendaritzakideak, administratzaileak, enplegatuek edo laguntzaileak berak edo bitarteko baten bidez jasotzen, eskatzen edo onartzen duenean edozein motatakoa den eta justifikatuta ez dagoen onura edo abantailaren bat, berarentzat edo hirugarren batentzat, merkantzien salerosketan, zerbitzuen kontratazioan edo harreman komertzialetan bidegabeki beste bati mesede egiteko ordain gisa.</p> <p>Era berean hartzen dira, modu pasiboan, aurreko paragrafoan aipatutako abantaila berberak jasotzen, eskatzen edo onartzen dituen zuzendaritzakidea, administratzailea, enplegatua edo laguntzailea, bera edo bitarteko bat.</p> <p>Lehia-abantailak lortzeko, agintari bati edo funtzionario publiko bati eroskeria-ordainketa egitearen delitua ere sartzen da, dagozkion funtzio publikoen arabera jardun dezan edo jardun ez dezan, kontratu bat, negozio bat edo edozein lehia-abantaila lortzeko edo hari eusteko, nazioarteko jarduera ekonomikoan.</p>
Kapital-zuriketa	Ondasunak eskuratzea, erabiltzea edo transmititzea, haien jatorria delituzko jarduera bat dela jakinda.
Ogasun Publikoaren aurkako jarduerak	<p>Estatuko, autonomia-erkidegoko, tokiko eta Europar Batasuneko ogasunari edo foru-ogasunari iruzur egitea.</p> <p>Administrazio publikoen edo Europako Batasunaren laguntzetan edo diru-laguntzean iruzur egitea.</p> <p>Merkataritza-kontabilitateko, liburu-etako edo erregistro fiskaleko obligazioak ez betetzea.</p>
Gizarte Segurantzaren aurkako jarduerak	<p>Gizarte Segurantzari iruzur egitea.</p> <p>Gizarte Segurantzako sistemaren prestazioetan iruzur egitea</p>
Legez kanpoko eraikuntza-, eraikingintza- edo urbanizazio-lanen aurkako jarduerak	<p>Babes bereziko bide, gune berde, jabari publikoko eremu edo tokietan urbanizazio-, eraikuntza- edo eraikingintza-lanak egitea.</p> <p>Lurzoru urbanizaezinetan, baimendu ezin daitezkeen urbanizazio-, eraikuntza- edo eraikingintza-lanak egitea.</p>
Ingurumenaren aurkako jarduerak	<p>Delitu ekologikoa.</p> <p>Hondakinen kudeaketarekin lotutako delitua.</p>
Eroskeria	Agintari bati edo funtzionario bati opari bat edo ordainsari bat eskaintzea edo ematea, bere zereginen aurkako ekintza bat egin dezan, egin behar duena egin ez dezan edo, besterik gabe, duen karguaren sari gisa.

KANAL ETIKOA-GERTA DAITEZKEEN ARAU-HAUSTE BATZUK	
MOTA	JOKAERA
	Aurreko kasu berean, ordainketa agintariak edo funtzionario publikoak eskatuta egin baldin bada.
Influentzia-trafikoa	Funtzionario batengan eragitea, funtzionario horrekin edo beste batekin dugun harreman pertsonala erabilia, sozietateari zuzenean edo zeharka etekinen bat ekar diezaiokeen ebazpen bat lortzeko. Halaber, jokaera gauzatzeko hobariak, opariak edo ordainsariak eskatzen badira, zigor jakin bat aurreikusi da.
Lehiaketa eta enkante publikoetan prezioak aldatzea	Lehiaketa publiko batean beste lizitatzailerik batzuekin eskaintzen prezioak adostea, edo beste lizitatzailerik batzuei presio egitea, aurkeztu ez daitezen.
Langileen eskubideen aurkako jarduerak.	Behar-egoera batez baliatzea edo iruzur egitea langileei lan-baldintzak edo Gizarte Segurantzakoak ezartzeko, beren legezko edo kontratuzko eskubideei kalte egiten dietenak edo haiek ezabatzen edo murrizten dituztenak. Aldi berean langile askori lana ematea, Gizarte Segurantzaren alta eman gabe, edo, hala badagokio, dagokion lan-baimena eskuratu gabe. Behin eta berriro, enplegatzea edo lana ematea lan-baimenik ez duten atzerritarrei edo lan-baimenik ez duen adingabeko bati. Eskulanarekin trafikatzeta. Lanean diskriminatzea arrazoi hauengatik: ideologia, erlijioa, etnia, sexua, sexu-orientazioa, familiako egoera, gaixotasuna, minusbaliotasuna, -ordezkaritza sindikala edo espainiar estatuko hizkuntza ofizialaren erabilera. Eta egoera hori amaiarazteko eskaera administratiboek kasurik ez egitea. Behar-egoera batean iruzurra edo gehiegikeria erabilia, askatasun sindikalaren erabilera edo greba-eskubidea galaraztea edo mugatzea. Lanean segurtasun- eta higiene-neurriak betetzeko bitartekoak ez ematea.
Agiri-faltsutzea	Dokumentu publiko edo pribatu bat faltsutzea (aldatzea, simulatzea, sinatzaile faltsuak gehitzea, gertakizunen azalpenean gezurra esatea...).
Delitu sozietarioak	Merkatuan jarduten duten sozietateen edo fundazioen administratzaileak, hauek egiten dituztenak: <ul style="list-style-type: none"> <li>• Sozietatearen egoera ekonomikoa islatu behar duten kontuak edo beste dokumentu batzuk faltsutzea, hari edo hirugarren batzuei kalte eragiteko.</li> <li>• Gezurrezko gehiengo batez baliatuz sozietatearentzat kaltegarriak diren erabakiak hartzea.</li> </ul>

KANAL ETIKOA-GERTA DAITEZKEEN ARAU-HAUSTE BATZUK	
MOTA	JOKAERA
	Legez kanpo bazkide bati bere eskubideak erabiltzea galaraztea.
Ikuskapen eta gainbegiratze administratiboekin lotutako delituzko jarduerak	Ikuskapen administratibo baten mende dauden merkatuetan jarduten duen sozietate baten egitezko eta zuzenbidezko administratzaile gisa, ikuskatzaileen edo erakunde ikuskatzaileen jarduera galarazten dutenak.
Ondasun publikoak bidegabeki eralgitzea	Diru-laguntza moduan jasotako kantitateak desegoki kudeatzea Euskaltel Taldeak
Bestelakoak	Uste baduzu gainerako salaketa-motek ez dutela deskribatzen zuk salatu nahi duzun egoera, erabil ezazu atal hau.

## 2. ERANSKINA: Datuen babesari buruzko informazioa

### **Arduradunaren identifikazioa eta harremanetarako datuak.**

Euskaltel SA (aurrerantzean “Euskaltel” edo “sozietatea”; helbidea: 809 Eraikina, Parke Teknologikoa, Derio, Bizkaia; IFK: A- 48766695; telefonoa: 944011000) da Sozietatearen Kanal Etikoaren bidez emandako datu pertsonalen tratamenduaren arduraduna. Politika honetan jasotzen da Sozietateak nola erabiliko dituen zure datu pertsonalak.

Pribatutasun-politika honek Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorraren arabera dagozkizun eskubideei buruzko informazioa ematea du xede (“DBEO”). Zure datu pertsonalen tratamenduari buruzko zalantzarik baduzu, jar zaitez harremanetan Sozietatearekin [canaletico@euskaltel.com](mailto:canaletico@euskaltel.com) helbidean; kudeaketa-motari buruzko kontsulta atalean, esaldi hau jarri: “Ezea eskubideak gauzatzea”.

Halaber, jakinarazten dizugu Sozietateak baduela datu-babeserako ordezkari bat Talde osorako izendatua. Hauxe da harekin harremanetan jartzeko helbidea: [dpd@euskaltel.com](mailto:dpd@euskaltel.com)

### **1. Zertarako tratatzen ditugu zure datu pertsonalak?**

Euskaltel Taldeak (zeinaren parte baita Sozietatea) definitutako politika, kode, eta jarduera-arauekin lotutako irregulartasunak direla eta aurkeztutako salaketak kudeatzeko erabiliko dira zure datu pertsonalak.

### **2. Zein da zure datu pertsonalen tratamenduaren legitimazioa?**

Euskaltel Taldeak zehaztuak dituen eta Sozietateari aplikatzen zaizkion politika, kode eta jokabide-arauek betetzen direla zaintzeko tratatuko ditugu zure datu pertsonalak.

### **3. Nori jakinaraziko zaizkio zure datuak?**

Araudia Betearazteko Batzordeko kideei emango dizkiegu zure datu pertsonalak. Batzorde hori Euskaltel Taldeko enpresa desberdinetako kideek osatzen dute (Euskaltel SA, R Cable y Telecomunicaciones de Galicia SA eta Telecable de Asturias SA enpresetakoek), Sozietateak administrazio-xedeekin duen interes legitimoaren arabera.

Halaber, zuk jarritako salaketaren ondoren prozedura judicial bat hasten bada, epaileei eta auzitegiei ere helaraziko zaizkie zure datu pertsonalak, Sozietateak babes judizialerako oinarrizko eskubideari lotuta duen interes legitimoaren arabera.

Jakinarazten dizugu, bestalde, zure datu pertsonalen nazioarteko transferentziarik ez dugula egingo.

### **4. Zenbat denboran gordetzen ditugu zure datu pertsonalak?**

Salaketekin lotutako datuak ustezko iruzurgileari buruzko ikerketa bat hasi behar den ala ez erabakitze behar den denboran gordeko dira gure sistemetan. Dena den, salaketa jartzen denetik hiru hilabetez gordeko dira gehienez. Sozietateak erabakitzen badu ez dela ikerketarik egingo, edo aipatutako epea betetzen bada, salaketen kanaleko sistematik ezabatu egingo dira datuok.

Aitzitik, Sozietateak erabakitzen badu ikerketa bat hasiko duela, sistemara eta ikerketa horiek egiteko ardura duen sozietatearen sailera migratuko dira datuak; datu horiek ikerketa behar bezala egiteko beharrezkoa den denboran gordeko dira, ez gehiago.

### **5. Zer eskubide dituzu?**

Eskubide hauek balia ditzakezu:

- (i) datu pertsonaletara sartzeko eskubidea, jakiteko zein ari diren tratatzen eta zer tratamendu-eragiketa egin zaizkien;
- (ii) zuzena ez den datu pertsonal oro zuzentzeko eskubidea;

- (iii) datu pertsonalak ezabatzeko eskubidea, ahal den kasuetan;
- (iv) datu pertsonalen tratamendua mugatu dadin eskatzeko eskubidea, baldin eta datu-tratamenduaren zehaztasuna, legezatasuna edo premia zalantzazkoa bada. Horrelakoetan, datuak gorde ahal izango dira, erreklamazioak egin edo defendatu behar direnerako.
- (v) Datu pertsonalen tratamenduari kontra egiteko eskubidea. Sozietateak utzi egingo dio datuak tratatzeari, kasu hauetan izan ezik: interes legitimo premiatsua baldin badu, edo erreklamazioak prestatzeko, aurkezteko edo defendatzeko behar baditu.

Noiznahi baliatu ahal izango zara eskubide horietaz; horretarako, aski da zure nortasuna egiaztatzea (NANaren edo haren baliokide den agiriren baten bidez). Doan da, eta bide hauetakoren bat erabiliz egin dezakezu:

1. Mezu elektronikoa bat idatziz [canaletico@euskaltel.com](mailto:canaletico@euskaltel.com) helbidera: kudeaketa-motari buruzko kontsulta atalean “EZZA eskubideak gauzatzea” esaldia jarri behar duzu, baliatu nahi duzun eskubidea eta zure identifikazio-datuak zehaztuta.
2. Idatzizko eskaera bat bidalita Euskaltel Taldeko Barne Ikuskaritzari, helbide honetara: Parke Teknologikoa, 809 eraikina, 48160 Derio, Bizkaia. Erreferentzian, argi idatzi behar duzu “EZZA eskubideak gauzatzea” esaldia, eta baliatu nahi duzun eskubidea eta zure identifikazio-datuak zehaztu.

Jakinarazten dizugu, bestalde, eskubidea duzula erreklamazioak aurkezteko Datuak Babesteko Espainiako Agentzian, uste baduzu datu pertsonalen tratamenduan datuak babesteko legeria urratu dela.